

8.JARDUERAK

Gure proiektuak hainbat ekintza izango ditu. Lehenengo gauza zigarro-muturrak biltzea izango da, horretarako edukiontziak jarriko dira parkeetan eta garraio-geltokietan. Horrela, jendeak erraz parte hartu ahal izango du ingurumenaren zaintzan.

Jasoketaren gaia oso garrantzitsua denez, erakunde publikoen laguntza beharko da. Haiek arduratuko dira edukiontziak hustu eta bildutako zigarro-muturrak birziklapen-puntura eramateaz, normalean egiten dituzten garbiketa-lanen barruan. Modu honetan, denok irabazten dugu: espazio publikoak garbiago egongo dira eta proiektuak ingurumenari lagunduko dio.

Behin muturrak bilduta, EkoReci bezalako enpresei emango zaizkie, haiek arduratuko direlako muturrak paper bihurtzeaz. Guk ez dugu papera egiten, hori enpresa espezializatuek egingo dute.

Papera eginda dagoenean, guk diseinuak prestatuko ditugu, koloreak eta irudiak erabiliz, produktua politagoa eta erakargarriagoa izan dadin. Gero, papera tokiko dendetan eta online salduko dugu, jendeak erraz erosi ahal izateko.

Azkenik, sare sozialetan proiektua zabalduko dugu eta kanpaina ekologikoetan parte hartuko dugu, jendeak proiektua ezagutzeko eta gehiago kontzientziatzeko. Horrela, gure proiektuak ingurumenaren alde lan egingo du modu sinple eta praktiko batean.